

Ararteco

TXILLARDEGI



GURE eskuetaraino iritsi den xingola magnetofonikoak ez du hondakinik. Zinez. Baina lekuri ez, zoritzarrez, bere osan hemen emateko. Markiegi hautagai izendatu zuten bilerako berri ematen da bertan. Eztabaida oso-osoa erdaraz dago, baina EGUNKARIAREN irakulekiko errespeta, gaztelaniatik euskarara itzuliko ditugu hitzak.

— Konstituzioak erdara ezagutzera behartzen nau, baina Estatutuak ez nau euskaraz jakitara behartzen —dio ahots batek.

— Hautagaiari euskaraz jakitara behartzea, legetik al jokatzea izango litzateke.

— Eta zer gertatuko litzateke —beste ahots batek— hautagaiak euskaraz jakin bai, baina erdaraz ez baleki?

— Faborez! Españan gaude! —ahots mordo batek. Gero arrabots handia. Eta Marioren hitz batzuek entzuten:

— Te vuelvo a repetir que no se dice lagartejo, sino ararteco.

— Gainera ez dakit zergatik haserretzen zaren horrela: Kataluña-ko 'Herriaren Defendatzaileak' ez daki katalanez; eta atzo irakurri nuenez, Turkiar herriaren defendatzaileak bulgarieraz besterik ez daki, eta onartua izan da...

— Egia saindua —beste ahots batek— Zergatik jakin behar du gaztelaniaz Espainiar herriaren defendatzaileak? Euskaraz jakitea aski du.

— Ixo! —denek. Azkenean bototara jo, eta hau izan bide zen emaitza:

Euskaraz jakin behar du : 0 boto. Ez du zertan euskaraz jakin behar: 28 boto. Hortaz: Markiegi hautagai, ahobatez.

Kontraizana

INAKI SEGUOLA



UNAMUNOK: «me contradigo, y que?» Euskarak: elurra, zuria delarik, beltza da. Herakliotik: erreak berberetan sartzen gara eta ez gara, gaude eta ez gaude.

Horrelatsu ari zen hitza, mintzoa, arrazoia, gure munduaren eta geure buruaren ezintasun kontraesantiar salatzen bagara eta ez gara. Gizon zuhurrei irudituz zitzaizen ordea, ez zela hori atarramendu zuzena, eta erabaki zuten gu betiere bagarela, erreak betiere badaoala eta ez dagoela erreak berberetan bitan sartzerik. Labur esanik: «panta rhei», edo gure Jean Eicheparek euskaraz: «otro badoa-tzi; deus, badagonik». Machado bat ez zuen txoro-haize horrek jo eta zintzo heldu zion munduaren kontraizana: «todo pasa y todo queda».

Gizona egun batez aspertu egin zen arrazoaren suarekin jostatzen, eta burutan hartu zuten pentsamendu biziaren ur-xirripa errendiaraztea ideien putzu geldo kirastuan. Horrela jato zen arrazoi lizundua, arrazoi uz-kurtua, bere buruari beldurrez iltzatua, herdoildua eta herbaldua; horrela jato ziren, hitz itusiz esanik, koherentzia eta sistematikotasuna; eta horrela jato zen, batipat, «gizarrazoia». Urola-aldeko euskarak munduari eman dion hitz ederrena, gure bihoiz-belarrinetan esan nahi baitu arrazoi edo arrazoi-bide lehorra, bekozkoduna, txintxoia, xusena eta kertia.

Gizonaren sasi-arrazoi iredun honetatik libre xamar gelditu ziren haurrak, eroak eta haizea bezain aldakor omen diren emakumeak, baina, munduaren joerari begiratuz, beldur izateko da pedagogia berriak, psikiatria betikoak edo feminismo aurreratuak ez ote duten lortuko kristo guztia sistematik eta koherente bihurtzea. Horri esaten zaio sua hauspean galtzea edo lurrazen gaiza gezatzea.

HEMEROTEKA

EL MUNDO

Marioren isiltasuna

Aspaldi izan zen nahiz eta denbora gutxi igaro den, PSE-EEK beheak eta goiak irentsi behar zituela zirudieneko egunak ziren, postnazionalismoaren urteko orduak. Jauregik lehendakari trajeraiko neurriak har ziezakioten uzten zien, eta Mario Onandia, sukaldari nagusiarena eginez, prentsan, irratiari eta telebistan Subijana eta Arriñanorekin lehiatzen zen. Mariorentzat eguneko menua gutxiegi zen. Goizero plater berriak ateratzen zituen mahukatik. Ramonek berak aitortu zuen, ohoratzen duen zintzotasunez: «Mario goizero ideia berriak eta sugerenteak dituela etortzen da nire bulegora».



—Felipe: zoaz, baina utzidazu dena konponduta.

MOLLEDA / DIARIO 16

Bada, hainbat egunetarik hona Mariok ez du txintik aterara. Horretaz bat-batean konturatu naiz, bat gaua iritsi dela, euria egin-duela edota haur bat

lokartu dela konturatzan den bezala. Inork ez du antzematen zein une zehatzetan gertatzen den, jadanik ez duela euria egiten, gaua dela, haurra lokartuta dagoela oharzten da, besterik gabe. Horrela konturatu naiz Mario ez dela hitz egiten ari, oharu bainaiz PSE ustelkeriaren aurka PSOEK darabilen mezua, berria bezain goizegi zahartua, errepikatzen ari dela.

Dezpejionatuta senti bainaiteke ere, ez dut esango EAeko sozialistek —idazkari nagusia buru izan dutela— ustelkeria kasuz, oro har, eta Osakidetzaokoz, bereziki, azaldu duten jarrerak harritu nauenik.

MARIANO FERRER

UZENDARIARI

Hautzaindegiei murrizketak

Egunotan aditzaera eman zaigun berri bati buruzko hausnarketa bat egitera gatzokizu.

Izan ere, Foru Aldundiak, hautzaindegiei ematen dien diru laguntza % 20 murriztea erabaki du eta honen ondorioz egoera larrian aurkitzen dira.

Hautzaindegiek, gaur egungo gizartean oso toki garrantzitsua betetzen dute, zenbaitek jaramon handiegirik egiten ez badie ere.

Guraso asko eta asko gara, bertara haurrak eramatean ditugunak. Batzuentzat, kanpoan lan egin behar dutenez, haurra zainduta edukitzeko alternatiba bat besterik ez da, hau da: familiartekoak, neska-meia ala haurzaindegia.

Beste batzuk, ordea, haurzaindegia, haurtaren garapenean, ondoren eskola izango duen zereginaren oinarria jartzen duela derizkion eta horregatik gure gizartean, gaur egun duen baino garrantzi gehiago eman behar zaiolaokan gaude. Ez dira beraz, gurasoak lanean dauden bitartean haurrak edukitzeko tokiak soilik.

Diru murrizketa hau dela eta, luxu bat bilakatu zaigu hemendik aurrera haurra haurzaindegietara eramatea. Honela, gure haurrei oso aukera garrantzitsua ukatuko diegu, ezinbestean.

Guuzi hau dela eta, salatu nahi dugu Foru Aldundiak aurreantzerako hartu duen erabaki hau.

ANE ALBISU
JEXUX LARREA

Donostia

'Elgoibarko Gaztetearen aldeko ekimena'

Urte hasieratik, Gazte Asanblada, etorkizun gertu batean herrian Gaztete bat sortzearen aldeko laguntza modura, kolektibo, talde, elkarte, aspektu ezberdinetan aipagarri diren pertsona, sindikatu eta abarren sinadura bilketa bat egiten ari da.

'Elgoibarko Gaztetearen aldeko ekimena' izendaturiko kanpaina honen barruan, sinadura orriarekin batera hainbat datu eta informazio garrantzitsu ematen dugu:

— 1986. urtean Udaletxea eta Gazte Asanblada —helbidea ezik— adostasuna iristea lortu zuten estatutu posible batzuk.

— Udaletxeak Siadeco enpresari agindutako 'Elgoibarko gaztediari buruzko ikerketa' izendaturiko inkestak emaitzen larupen bat (datuak eta gomendioak). Emaitza hauek, 1992ko otsailetik Udaletxeak 'bahituak' aurkitzen dira, ziurrenez

hain eguneroko ihardueren aurkakoak direlako.

— 1993ko irailean 'Elgoibarren' asterkarian Gaztete baten beharri buruz kaleratutako deklarazioak: guztiak aldekoak.

— Hemendik aurrera ere 1993ko azaroan Errotatxok antolatu zituen 'Gazteak, Droga eta Aisialdia' izendatutako ihardunaldien ondorioz, Izadia-Gizarteak gaiak ikertzeko kabineteak burututako txostenaren zati bat gehituko dugu.

Dagoeneko hasi gara gazte kolektibo, musika taldeen... lehen sinadurak jasotzen. Baita ere, kirolariena, ikasle elkar-teena, emakume taldeena...

Sinaduraz gain, hau eza bada ere, kritikak, sugerentziak, aportazioak... jasotzeko irekita gaude.

Gazteak elkartzeko leku autogestionatu baten beharra —non moeta guztietako ekintzak burutu eta gure egoera aztertuko genueken—, Elgoibarko gaztediaren artean nagusitzen den sentimendua da. Udaletxearen heritasuna bezain argi ageri zaigun egoera.

Bai lokal beharra zein Udalaren hertsitasuna Elgoibarren gai honi buruz egin diren ikerketa guztietan azaltzen diren arloak dira. Noiz arte?

Jarrera munizipalaren aldetara beharrezkoa da. Argudiokoa baliagarri ez baizaizkie, zer gelditzen zaigu?

ELGOIBARKO GAZTE ASANBLADA

GAIA JARRITA

Udalerrri Euskaldunen Eguna

Aupa euskara oihukatuz saltatu ginan kalera, lehendabiziko sartu behar zan gizaki oron etxera. Urte dexente pasa dira ta zergatik ez udalera, barruko mila bitera, eztabaida ta papera, ahal bada denak batera. Udal bakoitzak bere hizkuntzan egin behar du aurrera, horrela noizbat Euskal Herrian euskaldun izango gara.

MANOLO AROZENA



Egunkaria

Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS.800/90

	OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE	
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREBLADIA	
Kontseilari Ordokaria: ISAKI URUA	
Gorenia: FERMIN LAZKANO	
Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI	
Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA	
Publizitateak: MARI JOSI SARASA	
Eppaineko Publizitateak: PUBLICITAS	
Cantón Flava 1.2a 28020 Madrid - Tel: 91.555.11.01 / Fax: 91.556.29.26	
HELBIDEAK	
Erredakzio eta Tailerra: ANITZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabillak / 20100 Lasarte-Oña - Tel: 37.15.45 / Fax: 36.54.93	
Egilea soziala, Publizitate eta Administrazio: ANISO JAKINA.	
01-1.28010 Donostia - Tel: 40.60.22 / Fax: 45.90.77	
Arabak: San Antonio, 20 / Lekua: 70100 Gasteiz - Tel: 21.38.72 / Fax: 23.38.73	
Nafarroa: Iratxe Monasterio, 35-13. esk. / (Iruntzi dorrea) / 31011 Ibañeta - Tel: 17.80.78/79 / Fax: 17.80.77	
Bizkaita: Zubalburu Eparantzara, 2-1.uzkero. / 48003 Bilbo - Tel: 410.40.40 / Fax: 410.37.15	
Lapurdi / Nafarroa Behere / Zuberoa: Pannecan 14, / 501 Posta Kutxantila, / 64100 Baiona - Tel: 50.50.35.75 / Fax: 50.25.75.11	